

ZUREKIN GOAZ

con todas nuestras fuerzas

ela.eus



#ZurekinGoaz

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

BEHIN-BEHINEKO IRAKASLEEN ZERRENDAK KUDEATZEKO ARAUAK

37/2020 Foru Aginduaren laburpena



ELA
NAFARROA

HEZKUNTZA

EGOITZAK / LOCALES

31004 Iruñea-Pamplona

Iturralde y Suit, s/n.

Tel.: 948 00 79 30

31800 Altsasu

La Paz, 3, Entr.

Tel.: 948 46 73 38

31200 Estella-Lizarra

C/ Fray Diego, 13-bajo

Tel.: 948 54 67 70

31350 Peralta-Azkoien

Avda. La Paz, 9-1.º izda.

Tel.: 948 75 10 17

31570 San Adrián

Ctra. de Estella, 32-bajo

Tel.: 948 69 61 59

31400 Sangüesa-Zangoza

Calle Mayor, n.º 9

Tel.: 948 43 01 08

31300 Tafalla

Plaza Cortés, 1-bajo

Tel.: 948 70 16 60

31500 Tudela

Fernando Remacha, 4, 1.º

Tel.: 948 02 62 02

31580 Lodosa

Paseo Central, s/n.

Tel.: 948 69 42 12

31780 Bera

San Esteban, 13-bajo

Tel.: 948 63 07 92

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

ELA
NAFARROA

HEZKUNTZA

ELA HEZKUNTZA NAFARROA

Tel. 948 00 79 30 - (WhatsApp) 688 695 227

Iturralde y Suit, z/g. - 31004 IRUÑEA

irakasirunea@ela.eus / @ELAhezkuntza

ela.eus



[#ZurekinGoaz](https://www.instagram.com/ZurekinGoaz)

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Oposaketa prozesuaren eta kontratazio zerrenden arteko binkulazioa mantentzen da. Ondorioz zerrendek gorputz, espezialitate eta hizkuntzetan segretatuta egoten jarraitzen dute.

1. LANPOSTURIK LORTZEN EZ DUTEN HAUTAGAI GAINDITUEN ZERRENDA (ZERRENDA "PREFERENTEA")

NORTZUK: Dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntzan EPEa gainditu baina lanposturik gabe gelditu direnak.

BAREMOA: Oposizio eta lehiaketan lortutako puntuazioen batuketa ponderatuaren arabera ordenatuko dira..

IRAUPENA: Dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntzan EPEa gainditu baina lanposturik gabe gelditu direnen zerrenda berria eratu arte.

* 6. artikulua arabera, azkeneko hiru deialdietatik edozeinetan lortutako notarik altuena mantenduko da. Inoiz ez dira deialdi desberdinetako oposizio eta konkurtzoko notak batuko.

* Ez da inola ere gordeko 2012. urtea baino lehenagoko kalifikaziorik.

2. ZERRENDA OROKORRA

A) NORTZUK: Dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntzako EPEa aurkeztutako pertsonak beti ere:

- Lehenengo ariketara (A eta B zatia) aurkeztu badira.
- Puntuazio positiboa (0 baino gehiago) jaso badute.
- Titulu baldintzak betetzen badituzte (aurretik zerrendatan dauden pertsonentzat ez da beharrezkoa izango hau).
- Zerrendetatik kanporatuak izan ez badira irakasteko gaitasun faltagatik edo espezialitatean aritzeko gaitasun faltagatik.

BAREMOA:

I. Atala (aurretiko irakasle lan-eskarmentua). GEHIENEZ 10 puntu

- 1.1. Ikastetxe publikoetan kidego berean emandako urte bakoitzarengatik: puntu bat (0,0833 hilabeteko).
- 1.2. Ikastetxe publikoetan beste kidegoetan emandako urte bakoitzarengatik: 0,5 puntu (0,0416 hilabeteko).
- 1.3. Ikastetxe pribatuetan kidego berean emandako urte bakoitzarengatik: 0,5 puntu (0,0416 hilabeteko).
- 1.4. Ikastetxe pribatuetan beste kidegoetan emandako urte bakoitzarengatik: 0,25 puntu (0,0208 hilabeteko).

Puntuazio hauek %50 handituko dira lan-eskarmentua Nafarroako Administrazioan izan denean.

II. Atala (formakuntza akademikoa). GEHIENEZ 5 puntu

2.1. Alegatutako tituluaren espedientea

0-10 eskalan	0-4 eskalan	Puntuak
6tik 6,99ra	1,5etik 1,99ra	Puntu 1
7tik 8,49ra	2tik 2,74ra	1,25 puntu
8,5etik 10era	2,75etik 4ra	1,5 puntu

2.2. Graduondokoak, doktoretzak eta aparteko sariak

2.2.1. Ikasketa aurreratuen ziurtagiri diplomarengatik, master ofizialen tituluengatik, ikertzeko nahikotasunarengatik: puntu 1.

2.2.2. Doktoretzagatik: puntu 1.

2.2.3. Doktoretzan aparteko saria lortzeagatik: 0,5 puntu.

2.3. Bestelako unibertsitateko tituluengatik

2.3.1. Lehenengo zikloko titulazioengatik: puntu 1.

2.3.2. Bigarren zikloko titulazioengatik: puntu 1.

2.4. Erregimen bereziko eta Lanbide Heziketako titulazioak

a) Musika eta Dantzako titulu profesional bakoitzeko: 0,5 puntu.s.

b) HEOko maila aurreraturiko titulu bakoitzeko: 0,5 puntu.

c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari titulu bakoitzeko: 0,2 puntu.

d) Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulu bakoitzeko: 0,2 puntu.

e) Goi mailako kirolari titulu bakoitzeko: 0,2 puntu.

III. Atala (bestelako merituak). GEHIENEZ 2 puntu

Oposizio deialdiak zehaztuko du zeintzuk diren.

IV. Atala (oposizio aldiko nota)

B) NORTZUK: Zerrenda berriak onartzeko unean indarrean dauden zerrenda orokorretan sartutako pertsonak osatua, baldin eta:

- Deialdi bereko kidego, espezialitate edo hizkuntza desberdin bateko lehen frogara (A eta B parteak) aurkeztu badira.
- Puntuazio positiboa lortu badute (zero baino gehiago).

BAREMOA: A zerrenda orokorreko baremoaren I., II. eta III. atalak.

C) NORTZUK: Oposizioak deitzen diren ikasturtean kidego, hizkuntza eta berezitasun berean lanean aritu direnak.

BAREMOA: Kontratua sinatzen dutenak zerrenda orokorrera pasatzen dira punturik gabe, A eta B ataleko pertsonen atzetik. Jatorrizko zerrendetan zeuden hurrenkeran sailkatuko dira.

IRAUPENA: Hautagaien zerrenda orokor berria osatu arte.

* 6. artikulua araberan, azkeneko hiru deialdietatik edozeinetan lortutako notarik altuena mantenduko da. Inoiz ez dira deialdi desberdinetako oposizio eta konkurtsoko notak batuko.

* Ez da inola ere gordeko 2012. urtea baino lehenagoko kalifikaziorik.

3. BERARIAZKO ZERRENDAK (ESPEZIFIKOAK)

1. Noizbehinkako deialdien bidez sortutako berariazko zerrendak

NORTZUK: Hezkuntza Departamentuak berariazko zerrendak irekitzen dituzenean eskaera bat aurkezten dutenak, kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzerako eskatzen diren baldintzak frogatuz.

BAREMOA: Betekizun bezala aurkeztutako titulazioko notaren arabera. Berdinketa balego, Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokorrean eskaera iristen den momentua hartuko da kontuan.

OHARRAK:

- Deialdiak, behin-behineko zerrendak eta behin betikoak Hezkuntza Departamentuaren iragarki-taulan eta Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko dira.
- Presazko arrazoiak direla kausa aipatutako tramiteak bete baino lehen kontratazko beharra baldin badago, Hezkuntzak jasotako eskaerak erabiliko ditu aurkeztu diren ordenean.
- Kontratua sinatzen dutenak zerrenda orokorrera pasako dira, bertan zeudenen atzean eta kontratua indarrean sartzen den egunaren arabera ordenaturik.

IRAUPENA: Mugagabea.

2. Probatuak deialdien bidez eratutako berariazko zerrendak

NORTZUK: Zerrenda batuk osatzeko Departamentuak proba bat gainditzea eskatu lezake. Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle eta Katedradunei beti eskatuko zaie. Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoei eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleei eskatu ahal zaie. Probak bi zati edo gehiago baditu, bakoitza izango da baztertzailea.

BAREMOA: Proban lortzen den puntuazio osoaren arabera ordenatuko dira hautagaiak. Zerrendak irauten duen bitartean, beste proba bat deitzen bada, hautagai berriak lehendik zeudenen atzetik kokatuko dira..

OHARRAK:

- Deialdiak, behin-behineko zerrendak eta behin betikoak Hezkuntza Departamentuaren iragarki-taulan eta Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko dira.
- Presazko arrazoiak direla kausa aipatutako tramiteak bete baino lehen kontratatzeke beharra baldin badago, Hezkuntzak proba gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du, puntuazioaren ordena erabiliz.
- Kontratua sinatzen dutenak zerrenda orokorrera pasako dira, bertan zeudenen atzean eta kontratua indarrean sartzen den egunaren arabera ordenaturik.
- Proben bidez eraturako berariazko zerrendek balio gabe utziko dituzte probarik gabe eraturako berariazko zerrendak.
- Proba bidez osatutako berariazko zerrenda egon arren, probarik gabeko berariazko zerrenda bat osatze erabakitzen bada, proba bidez osatutako zerrenda lehenetsiko da.

IRAUPENA: Mugagabea.

4. ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOKO ZERRENDAK

NORTZUK: Ohiz kanpoko kasuetan soilik erabiliko dira, aurreko zerrendetan jenderik ez dagoenean. Titulazio eskakizunak bete beharko dira eta enplegu zerbitzu publikoetan inskribatuta egon enplegu eskatzaile gisa.

BAREMOA: Enplegu zerbitzu publikoek bidalitako zerrenden ordena jarraituko da.

OHARRAK: Kontratua sinatzen dutenak zerrenda orokorrera pasako dira, bertan zeudenen atzean eta kontratuak sinatu diren dataren arabera ordenatuta.

IRAUPENA: Enplegu zerbitzu publikoak zerrenda berriak eratu arte (gehienez hiru urte).

KONTRATAZIO BEREZIAK

NORTZUK: Salbuespen gisa, aurreko zerrendetan hautagairik ez dagoenean, bete nahi den lanpostuaren ezaugarrietara hobekien egokitzen direnak kontratatu ditzake Departamentuak.

OHARRAK: Kontratua sinatzen dutenak zerrenda orokorrera pasako dira, bertan zeudenen atzean eta kontratatuak sinatu diren dataren arabera ordenatuta.

ZERRENDAK BERRANTOLATZEA

Kidego jakin batean sartzeko azken bi oposaketetan ez bada espezialitate eta hizkuntza batean deialdirik izan, zerrenda orokor horretako hautagaiak berrantolatu egingo dira dagokion deialdiaren baremoa aplikatuz.

ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO IZENGAIEI DEITZEKO MODUA

Destinoa aukeratuz gero, ezin zaio uko egin, eta ezin da aldatu geroagoko beste dei batean. Kontratu bat onartu ondoren, izengaiia “ez disponible” bezala azalduko da zerrenda guztietan.

Salbuespen gisa, espezialitate eta hizkuntza bati dagozkien hautagaien zerrendak erabili ahal izango dira antzekoa den beste espezialitate eta hizkuntza baterako.

LET (Lanpostuen Esleipen Telematikoa):

- Irakasleak kontratatzeko deiak telematikoki egingo dira ikasturtea hasi aurretik (ekaina, uztaila eta abuztua), baita ikasturtea hasita ere (astelehenetan, asteazketan eta ostiraletan).
- Zerrendetan “disponible” moduan dauden pertsonen parte hartu dezakete.
- Zerrendetan sartzeko baldintza orokorrak eta titulazio baldintzak betetzeaz gain, erabiltzailearen ziurtagiri bat (NAN elektronikoa edo ziurtagiri digitala) edo NANA+PINa eduki beharko dituzte.

Borondatez parte hartzeko deialdiak:

https://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/6520/Llamamientos-Web-Contratacion-personal-docente

Bana-banakako telefono deiak:

Prozedura telematikoa banakako telefono deiekin batera ere eman daiteke urgentzia arrazoiak tarteko. Lau aldiz segidan deitu eta lokalizatzen ez diren hautagaiak “ez disponible” izatera pasako dira zerrenda guztietan.

Araubide orokorraren salbuespenak:

- Hautagai bat lanpostu batean ari bada ordezkapen bat egiten eta **kontratua bukatzen denetik 20 egun pasa baino lehen irakasle hori bera ordezkatzeko beharra sortzen bada**, ordezkapena egin duen irakasleari eskaini ahal zaio kontratua, betiere tarte horretan ez badu beste kontratu bat sinatu.
- Izengai batek lanaldi partzialeko kontratua duenean, eta **ikastetxean berak bete ahal duen behar bat sortzen bada**, behar berria eskainiko zaio aurreko ordutegiarekin bateragarria bada.

– **Betetzeko zailak diren lanpostuak:**

- Izengai bati, ikasturte osorako lanpostu huts gisa, betetzeko zaila den lanpostu bat esleitzen zaionean, Departamentuak ondoz ondoko hiru ikasturtetan kontratatuko du, plaza funtzionario batek betetzen badute ere, ikastetxean beharra desagertzen bada ere edo izengaiak nahitaez bete behar ez izateko moduan aldatzen bada ere.
- Hiru ikasturteak igarotzen badira lanpostua funtzionario batek bete gabe, kontratatutako irakasleak bertan jarraitu ahal izango du harik eta funtzionario batek betetzen duen arte.
- Betetzeko zaila den lanpostu bat sinatuta dutenek, hurrengo ikasturtean jarraitu nahi ez badute, uko egin dutela jakinarazi beharko dute maiatzaren lehen hamabostaldian.

– **Betetzeko zailak diren lanpostuen zerrenda:**

- Herri hauetan kokatutakoak: Aurizberri/Espinal, Auritz/Burguete, Erro, Erronkari, Ochagavia, Garralda, Luzaide/Valcarlos eta Zugarramurdi.
- Arantza, Betelu, Goizueta eta Urdax-Zugarramurdiko Bigarren Hezkuntzako bakanteak.
- Eremu ez-euskalduneko zentroetan 2016-2017 ikasturtetik aurrera D eredua jarri den espezialitateetako bakanteak.
- Iruñako García Galdeano IP-ko, San Jorge IP-ko, Arrotxapea IP-ko, San Francisco IP-ko (A eta G ereduetan bakarrik) eta Nicasio de Landa IP-ko, Huarte BHI-ko, Nuestra Señora de Ujué de Figarol IP-ko eta Zudaire Las Amescosas IP-ko ikastetxeetako bakanteak.
- Oinarrizko lanbide-heziketako eta lanbide-heziketa bereziko zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeetako lanpostu hutsak.
- "Landa-eskoletako" lanpostu hutsak.

LANPOSTUARI UKO EGITEA

JUSTIFIKATU GABEKO UKO EGITEAK

Zerrenda guztietan "ez disponible" egotera pasako dira:

- Derrigorrezko lanpostu bati behin bakarrik uko egiten diotenak.
- Lokalizatuak izan ez direnak.
- Lan-eskaintzaren berri izan ondoren, telefono deiarri erantzuten ez diotenak.

Ikasturtean behin bakarrik eskatu ahal izango da berriz ere "disponible" egoerara pasatzea. Eskaera egin eta 10 egun balioduneko epean aldatuko da izengaiaren egoera. Inoiz ez uko egin dion kontratuaren hasiera egunaren biharamuna baino lehen.

Aukera hau agortuta, izengaiak derrigorrezko plaza bati uko egiten badio justifikaziorik gabe, **"ez disponible" egoerara pasako da zerrenda guztietan ikasturte osorako.** Ikasturte berriarekin batera aurreko ikasturteko "ez disponible" egoerak efekturik gabe geldituko dira.

JUSTIFIKATUTAKO UKO EGITEAK

- Lanaldi erdia baino gutxiagoko lanpostuak.
- Lanpostu ibiltariak.
- Antzekoak diren berezitasunen lanpostuak.
- Profil espezifikoko behar dituzten lanpostuak.
- Kartzelan dauden lanpostuak.
- Musika, Heziketa Fisikoa, Hizkuntza Modernoa edota euskararekin (gaztelaniazko zentroetan) osatzen diren lanpostuak. Gauza bera trebetasun instrumentalak dituzten berezitasunak.
- Ekaina eta uztaileko esleipenetan %80 baino gutxiagoko lanaldia duten kontratuak hartzea. Ondoren derrigorrezkoak izango dira gutxienez %50eko lanaldia duten kontratuak hartzea.
- Erditze, adopzio edo harreragatik lizentzia izatea: Erreserbatuko zaie dei egin dieten momentuko plaza.
- Aitatasun baimena izatea edo aldi baterako ezgaituta egotea: izengaia "ez disponible" egoerara pasako da egoera hori sortu duen zergatia bukatzen den arte. Orduan bere disponibilitatea adierazi beharko du, frogatuz kontratua eskaini zitzaien unean alegatu zuen egoera bai eta honen bukaera ere.

Kasu guztietan izengaia zerrendan dagoen postu berean mantenduko da.

ZERRENDETATIK KANPORATZEA


KONTRATATUA IZAN DEN ZERRENDETATIK SOILIK:

- Indarrean dagoen kontratuari uko egiteagatik gutxienez 15 egun lehenago abisatuz.
- Proba aldia ez gainditzeagatik (soilik lehenengo kontratuan eta 2 hilabeteko epean).
- Kontratua deuseztatzeagatik espezialitatean erakutsitako gaitasun faltagatik edo lanpostuari ez egokitzeagatik.

ZERRENDA GUZTJETATIK:

- Onartutako kontratua ez sinatzea.
- Lanpostua uztea edo kontratuari uko egitea aurreabisuko 15 egunak errespetatu gabe.
- Irakasteko gaitasun ezagatik kontratua deuseztatzeagatik.
- Jubilatzeke adina bete izatea, lanean jarraitzeke eskaera egin ez badu.
- Izengaien zerrendetan egoteko eskakizunen bat betetzeari uztea.
- Karrerako edo praktiketako funtzionarioa izendatu izatea.

Oharra: berdez Foru Agindu berri honek dakartzan aldaketak aurrekoarekiko.





Afiliazio orria
Hoja de afiliación
ela.eus

Izena: **NAN/EIZ:**
Nombre DNI/NIE

1. abizena: **Emakumezkoa**
1º apellido Mujer

2. abizena: **Gizonezkoa**
2º apellido Hombre

Helbidea:
Dirección

Herria: **Posta kodea:**
Localidad CP

Herrialdea:
Provincia

Jaioteguna:
Fecha de nacimiento

Jaiotze herrialdea:
Lugar de nacimiento

Telefonoa: **Mugikorra:**
Teléfono Móvil

E-posta:
E-mail

Banku edo Aurrezki Kutxa:
Banco o Caja de Ahorros

IBAN zenbakia (banku kontua): /
Nº IBAN (cuenta bancaria):

Lantokia:
Empresa

Enpresaren G.S. ko zenbakia:
Nº Seg. Social de la empresa

Helbidea:
Domicilio

Herria:
Localidad

Lanbidea:
Profesión

Kategoria:
Categoría

Lan-hitzarmena:
Convenio

Sindikatuak betetzeko
A rellenar por el sindicato

Kuota mota:
Tipo de cuota

Arduraduna:
Responsable

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO-POLITIKA / POLÍTICA INFORMATIVA EN PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

ELA-EUSKAL SINDIKATUAK jakinarazten dizu datu pertsonalak afiliazio-eskaria kudeatzeko eta afiliatuarekin harremana izateko tratatzen direla, oinarritzat hartuta sindikatu bateko uneko edo izandako kideen datu-tratamendua, DBAOaren 9.2.d) artikulua araberak. Zure datuak ez zaizkio beste inori emango, bi kasutan salbu: betebeharrak legal baten ondorioz edota errenta aitortzearen sindikatuari ordaindutako kuoten kerketa fiskala kudeatu ahal izateko, DBAOaren 9.1 artikulua baita. Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko eskubideak gauzatzeko eskaria bidal dezakezu honako helbidera: **dbo@ela.eus**. Datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago duzu **www.ela.eus** webgunearen pribatutasun atarian.

ELA-EUSKAL SINDIKATUA le informa de que los datos personales son tratados para gestionar la solicitud de afiliación y mantener una relación con la persona afiliada, basado en el tratamiento de datos referido a miembros actuales o antiguos de una organización sindical, en base al art. 9.2.d) RGPD. Sus datos no serán comunicados a terceros salvo en cumplimiento de una obligación legal o con su consentimiento para posibilitar la deducción fiscal en la declaración de la Renta de las cuotas satisfechas al sindicato, en base al art 9.1 RGPD. Puede ejercer los derechos vinculados al tratamiento de sus datos personales enviando su petición a **dbo@ela.eus**. Tiene a su disposición información adicional sobre este tratamiento de los datos en el portal de privacidad del sitio **www.ela.eus**

Pribatutasun politika irakurri eta ulertzen dut.
He leído y comprendo la **política de privacidad**.

ELAk nire datu pertsonalak Foru Ogasunari helaraztea, Errenta aitortzearen ordaindutako kuoten kerketa fiskala egin ahal izateko:

Que mis datos personales sean comunicados por ELA a la Hacienda Foral para posibilitar la deducción fiscal de las cuotas satisfechas al sindicato en la declaración de la Renta:

BAIMENTZEN DUT
AUTORIZO

EZ DUT BAIMENTZEN
NO AUTORIZO

HELBIDERATZEA / DOMICILIACIÓN

Helbideratzeko aginduaren eskabide-orria sinatuz gero, batetik ELAri baimena emango diozu bere finantza-erakundeari zorduntzeko aginduak bidal diezaizkion, eta bestetik, finantza erakundeari, ELAren jarraibideen araberak kasuan kasuko zenbatekoak kontuan zordundu ditzan.

Zure eskubideak kontuan hartuta, eskubidea duzu finantza-erakundeak itzulketa egin diezazun berarekin sinatutako kontratuko baldintzen araberak. Itzulketa hori zortzi asteko epean erreklamatu beharko duzu, zure kontuan zordundu zen egunetik hasita.

Mediante la firma de esta orden de domiciliación, el deudor autoriza a ELA a enviar instrucciones a la entidad del deudor para adeudar su cuenta y a la entidad para efectuar los adeudos en su cuenta siguiendo las instrucciones de ELA.

Como parte de sus derechos, el deudor está legitimado al reembolso por su entidad en los términos y condiciones del contrato suscrito con la misma. La solicitud de reembolso deberá efectuarse dentro de las ocho semanas que siguen a la fecha del adeudo en su cuenta.

BAIMENTZEN DUT
AUTORIZO

EZ DUT BAIMENTZEN
NO AUTORIZO

Izen abizenak
Nombre y apellidos

NAN:
DNI:

SINADURA
FIRMA

DATA:
FECHA: